

AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUZ • ZUMAIA

■ KIROL ALDIZKARIA

sasonian

2010eko martxo

17. zenbakia

AKONKAGUAKO GAILURRERA

25. urteurrenari begira • 08

ORIOARRAK KIROL BATZORDEA

Euskal Txirrindulari Itzuliarekin bat • 10

HAUR IBILALDI NEURTUA

Inda Mendi elkartearen eskutik • 12

DANTZAN BANAKA

Eneko Balerdi esku pilotan • 16

Laura Gomez

“Emakumezkoen futbolarak oihartzun handiagoa merezi du” • 4



AURKEZPENA

Martxotik aurrera 'Sasoian' berritzen

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

AZALA: Futbol Club Barcelona.

Euskara eta kirola: Urola Kostako Hitza

Beroketa ariketak: Orioko Udala eta

Urola Kostako Hitza.

Berriketa: Laura Gomez eta Futbol

Club Barcelona.

Kronika: Jose Ramon Zabala.

Taldea: Fernando Ortiz de Guinea

eta Urola Kostako Hitza.

Kirolari gazte: Inda Mendi mendi elkar-

tea eta Gure Txeru elkar-

Hariari tiraka: Urola Kostako Hitza,

Txumai Fernandez, Baleike.com eta

Real Sociedad.

Erronka: BAD-Bilboko Udala.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Ane Azkue

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Orvy EM

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Hilabetekari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarauz eta Zumaia kirol albisteak

jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaia kirol albisteak, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.

UROLA KOSTAKO



UDAL ELKARTEA

NEGUA utzi eta udaberrira goaz, eguzki epeletara. *Sasoian* aldizkaria eta www.sasoian.info ere eguzkiaren epelaren bila goaz; berritzen ari gara. 17. zenbakia du aldizkariak martxoko hau, eta Interneteko edizioak ehunka albiste eta berri eman du gure eskualdeko kirolari, kirolariei eta kirolzaleei buruz. Egin dugu gure lasterketaren aurreneko etapa. Sortu dugu gure lekutxo.

Berritzea ezinbestekoa da, ordea, gure irakurle eta internauten grinari eta jakin-minari eusteko. Baina, horrekin batera, moldatzea ere beharrezkoa da, administrazio publikoek oro har eta Urola Kostako Udal Elkarteak izan dituzten aurrekontu murrizketak kontuan hartuta.

Berritu eta moldatu, hori da gure asmoa, ziur baikaude *Sasoian* aldizkariak eta webguneak badutela zer esana eskualdeko kirol informazioa lantzerakoan eta plaza-rtzerakoan.

Martxotik aurrera hainbat aldaketa ikusiko dituzu *Sasoian* irakurtzen edo www.sasoian.info webgunean igerian zabiltzanean. *Sasoian* aldizkaria bi hilean behin plazaratuko dugu (orain arte hilean behin). Aldizkariaren atalak, egitura eta asmoak oraingoak izango dira, aldaketaren bat gorabehera.

Berrikuntza nagusia webguneak izango du, izan ere, aurrerantzean www.sasoian.info webguneak hainbat tresna eskainiko du irakurleek parte hartzeko: albisteei erantzuteko aukera, inkesta, elkarrizketa digitalak kirolari ezagunekin, kirol foroak, kirol kronikak idazteko aukera, harpidetza bidez buletina eskuratzeko aukera, RSS jarria...

Sasoian webgunearen bidez eskualdeko kirolak, kirolariak eta kirolzaleak harremanetan.

Lide Amilibia Bergaretxe · Urola Kostako Udal Elkarteak lehendakaria



Elkarrizketa digitala,
apirilak 15, 12:00etan

HAIMAR ZUBELDIA
(txirrindularia)


aldez aurretik, egin zure galdera
www.sasoian.info webgunean!

Adinekoak ere sasoiko daude



ORIOKO Udalak adinekoei zuzendutako kirol zirkuitua jarri du Oria ibaiertzeko pasealekuaren ondoan, Dike parkean. Zirkuitua zazpi aparatuz osatuta dago, eta doan erabil daiteke. Aparatu horiei esker, egunero erabiltzen ez dituzten gorputzeko atalak mugitzeko aukera izango dute erabiltzaileek, eta horrek hainbat onura sortuko die:

besteak beste, gorputzeko giharrak indartzea, errehabilitazioa egitea, koordinazioa hobetzea eta malgutasuna lantzea. Edonola ere, aparatuek erabili aurretik sendagilearen oniritzia jasoatzea komeni da. Horrez gain, aparatuek ez dira jostailuak eta ez da egokia 12 urtetik beherakoek erabiltzea; eta, erabiltzekotan, beti ere helduek zainduta izan beharko du.



KIROL ZIRKUITUAN paratu dituzten zazpi aparatuek erabilgarri daude.

FÖHN	TIFOIA	ZIRIMOLA	MONTZOIA	SIROKOA	GARBI	ALISIOA
<p>Onurak: bihotzaren funtzioa hobetzen laguntzen du. Era berean, hanketako artikulazioen koordinazioa eta giharrak hobetzen ditu.</p>	<p>Onurak: gorputzeko koordinazio orokorra hobetzen du. Bihotzaren, zirkulazioaren eta giharren funtzionamendua hobetzen ditu. Beheko artikulazioak eta aldakak lantzeko balio du.</p>	<p>Onurak: bihotzaren funtzioa eta giharren funtzioa hobetzen du. Beso, esku-mutur eta ukondoaren malgutasuna hobetzen ditu.</p>	<p>Onurak: hanken malgutasuna eta egonkortasuna hobetzen ditu. Behe artikulazioak, aldaka, belanak eta orkatilak indartzen ditu.</p>	<p>Onurak: besoen koordinazio orokorra hobetzen du. Sorbalden, ukondoaren eta eskumuturren malgutasuna hobetzen du. Sorbalden errehabilitazioan laguntzen du.</p>	<p>Onurak: besoen koordinazio orokorra hobetzen du. Sorbalden malgutasuna hobetzen du. Sorbalden errehabilitazioan laguntzen du.</p>	<p>Onurak: sabeleko eta gerriko giharrak indartzen ditu. Bizkarrezurraren eta geriaren malgutasuna handitzen du. Figura hobetzen laguntzen du.</p>
<p>Erabilera: eserita, hankak pedaletan jarri eta eragin.</p>	<p>Erabilera: igo plataformara eta heldu barrari eskuarekin. Mugitu hanka bi aldeetara, kulunkatuz.</p>	<p>Erabilera: zutik, hartu eskuekin bi heldulekuak eta biratu biak batera.</p>	<p>Erabilera: eserlekuan eserita eta hankak plataforman jarrita. Tolestu eta luzatu hankak, hurrenez hurren.</p>	<p>Erabilera: zutik, heldu palankei eskuekin. Biratu ezkerretik eskuinera eta goitik behera, hurrenez hurren.</p>	<p>Erabilera: zutik, heldu palankei eskuekin. Birak eman gurpilari esku batekin edo biek.</p>	<p>Erabilera: jarri zutik plataforman eta heldu barrari. Mugitu suabe-suabe gorputza alde batera eta bestera.</p>

Laura Gomez

Futbol jokalaria

«Ezusteko ederra jaso nuen Barçan



onartu nindutenean, ez bainuen espero»

Realean bost urtez jokatu ostean, Bartzelonako taldean ari da gaur egun jokalaria zarauztarra. Une honetan, Superligako azken fasea jokatzen ari da.

«IBILBIDE LUZEA egin dut, baina orain bizitzen ari naizen bolar da politena. Niretzat amets bat izan da Barçara iristea». Lortutako az harro dago Bartzelona futbol elkarteko jokalaria Laura Gomez (Zarautz, 1983). Diseinu grafikoa ikasi zuen, eta Bartzelonara joateko ideia aspalditik zebilkion buruan, «bertan aukera gehiago dagoelako». Oraindik lanik topatu ez duen arren, futboleko jarraitzeak aukera izan du. Zarauzko taldean eman zituen bere lehen ostikadak, 1998 eta 2003 artean. Jarraian, Realaren elastiko txuri-urdina defendatu zuen bost urtez eta, orain, kolore *blaugranaz* jantzita irteten du zelaira.

Reala utzi eta lan kontuak zirela medio, Bartzelonara joan zinen duela pare bat urte. Barçak bere ateak irekiko zizkizun itxaropenik ba al zenuen?

Egia esan, ez nuen halakorik espero. Hasiera batean lana topatzeko asmoz abiatu nintzen Bartzelonara baina, aldi berean, bertako futbol taldean proba egiteko aukera sortu zitzaidan. 2008ko udan izan zen, abuztuan, denboraldi aurreko boladan. Realeko entrenatzaile nuen Iñigo Dominguezek Barçako entrenatzaile Xabi Llorensekin hitz egin zuen, eta nire gaitasunen nahiz ezaugarrien berri eman zion.

Ondorioz, astebetetz beraiekin entrenatzeko deitu ninduten. Azterketa moduko zerbait izan zen, baina hirugarren egunerako taldean onartzen nindutela jakinarazi zidaten. Ez nuen uste hartuko nindutenik. Ezusteko ederra jaso nuen, egia esan.

Zer baloratu zuen Barçako entrenatzaileak baiezkoa emateko orduan?

Entrenamendu saioen barruan partidatxoak jokatzen genituen elkarren aurka, eta entrenatzaileak gainerako jokalariekin ongi moldatzen nintzela ikusi zuen. Taldean ongi funtzionatu nezakeela,

« Futbolean jokatzegatik jasotzen dudan soldatak ez du bizitzeko adina ematen »»

alegia. Berria eman zidatenean, sekulako ilusioa sorrarazi zidan. Nola bait esateko, Barçan jokatzera nindoan! Nire lehen urteak, gainera, futbol elkartearen garairik oparoenarekin bat egin zuen; izan ere, gizonzkoek denboraldi ikaragarria osatu zuten eta emakumeok Superligara itzultzeaz gain, txukun aritu ginen gure lehen denboraldian.

Munduko futbol elkarte garrantzitsuenetariko batean jokatzeko errespetu handia emango du, ezta?

Dezenteko errespetua ematen du, bai. Barçan asko mimatzen dituzte harrobia eta etxeko jokalaririk; eta ikuspegi teknikitik asko irakasten dizute. Oro har, diziplina handiko elkarte da, eta hori guztia arraro samarra egin zitzaidan hasieran. Horrez gain, Realean ez bezala, soldatxo bat jasotzen dugu jokalaririk guztiok. Realean, nik jokatzeko nuen behintzat, sari gisa jasotzen genuen dirua; hau da, partidak irabaziz gero edo garaipen garrantzitsuren bat lortuz gero ordainsariak ematen zizkiguten, taldekide guztien artean banatzeko. Orain, soldata bat jasotzen dugu eta jokalaririk bakoitzak berea du, entrenatzailearekin adostutako zenbatekoa. Nolanahi ere, futboletik jasotzen dudan soldata ez du bizitzeko adina ematen.

Zer moduz moldatu zara bizi-modu eta talde berrira?

Oso ongi moldatu nintzen hasierahasieratik. Gainera, taldean beste

Laura Gomez

Zarautz, 1983



✓ Gustuko tokian

Txikitan Athleticzalea bazen ere, Barça betidanik izan du gustuko. Une honetan, gainera, bere jokalaria gogokoena Lionel Messi argentinarra da. Ondorioz, «hemen egotea, jokalaria handi horiengandik gertu, pribilegio bat da. Oso gustura nago Barçan!».

« Iaz Europako Txapelketarako hautatu ninduten arren, ez nuen selekzioarekin debutatu »

bi jokalaria euskaldun daude, Marta Unzueta eta Elba Unzue nafarrak, eta horiekin primeran moldatzen naiz. Oro har, taldeko kide guztiekin konpontzen naiz ongi, guztiok gazteak baikara eta giro ona baitugu elkarren artean. Ez nuen taldera moldatzeko inolako arazorik izan, eta jokalaria guztiak laguntzeko prest agertu zitzaizkidan lehen egunetik. Izan ere, hasieran ez dakizu ongi non zabiltzan, ezta nora joan behar duzun ere, eta taldekideek gauzak erraztu zizkizidaten uneoro. Hizkuntzari dagokionez, une honetan katalana ikasten ari naiz, eta ez dut arazorik.

Memento honetan, Superliga-

ko azken fasea jokatzen ari zarete. Liga irabazteko moduan al zaudete ala nahikoa garesti dagoela uste duzue?

Ez dakit, bada. Neguko ligaskan gure multzoko txapelkunorde izan gara, Espanyol taldearen atzetik. Orain, berriz, Superligako azken fasean lehiatzen ari gara ligako multzo bakoitzean lehen postuetan sailkatu garen talde guztiak. Beraz, txapelketa erabakitzeko ligaskan murgilduta gaude bete-betean. Ligaskako lehen bi sailkatuen artean erabakiko da txapelketa, finala jokatuz. Helburua, nola ez, liga irabaztea da eta hasiera kaskarra egin dugun arren, garaipena lortzeko ilusioz gaude. Lortuko dugun itxaropena dugu. Ligaska bukatu bezain pronto, Erreginaren Kopa jokatzen hasiko gara.

Txapelketa fasean zure aurreko taldearen aurka neurtu behar izan dituzu indarrak, Reälaren aurka, hain zuzen ere. Berezia egin al zaizu zure adiskideen kontra jokatzea?

Beti izaten da berezia zure talde ohiaren aurka lehiatzea eta, ondorioz, zure lagun direnen aurka indarrak neurtzea. Horietako asko, gai-

TALDERA moldatzeko inolako arazorik ez zuela izan adierazi du Gomezek.

nera, zarauztarrak dira: besteak beste, Maite Lizaso eta Marina Agoues. Elkarren aurka jokatu dugun guztietan urduri jartzen naiz, ez baitut jakiten nola ariko naizen. Azken finean, oso ongi ezagutzen dugu elkar eta jakin badakigu bakoitzak zein ezaguri dituen, baita nolako jokamoldea duen ere. Dena dela, ni irabazte-
ra irteten naiz beti zelaira.

Tituluren bat lortzea al da taldearen helburua aurtengo denboraldian?

Hala da, bai. Liga ez bada, Kopa irabazi nahi dugu. Aurten, denboraldiurrean Kataluniako Kopa irabazi genuen, Espanyolen aurka, baina iaz ez genuen titulurik lortu. Ligan nahiz kopan txukun aritu arren, ez ginen finalera iritsi. Aurten, ordea, txapelketaren bat irabazi nahi dugu. Jakin badakigu zaila izango dela, gure aurkariak ongi prestatuta baitaude, baina dena emango dugu hori lortzeko. Talde arriskutsuena Rayo Vallecano dela esango nuke, fitxaketa asko eta onak egin baititu, eta dena irabazteko asmoa dute.

Eta, maila pertsonalean, zeintzuk dira zure helburuak?

Nire helburu nagusia futboleko jarraitu ahal izatea da eta, bide batez, Espainiako selekzioaren deia jasotzea, datorren urtean Munduko Txapelketan parte hartzeko. Iaz Europako Txapelketa jokatzeko hautatu ninduten, baina ez nuen debutatu. Pena eman zidan, baina Espainiako jokalaririk onenekin batera une hura bizitzea ikaragarria izan zen.

Barçako gizonetako lortu dituzten sei tituluek eraginik izan al dute emakumezkoen taldean?

Elkartearantz sekulako lorpena izan da, baina eragin zuzenik ez du izan gugarik. Jokalaririk naizen aldetik, inbidia sanoa ematen dit; izan ere, jokoa zizuten txapelketa guztiak irabazi dituzte. Horrek guztiak borrokan jarraitzeko eta ahal dugun neurrian denboraldi biribila osatzeko indarra eman digu emakumeoi.

Argi ikusi da harrobia landuta talde irabazle bat osatu dutela. Emakumezkoen kasuan ere eredu hori jarraitzen al dute?

Dudarik gabe. Gizonetakoetan zein emakumezkoetan harrobiak le-

hentasun nabarmena du, eta klubak dituen beheko talde horiek denak horren adibide dira. Emakumezkoen lehen taldeko jokalaririk gehienak etxeokoa dira eta, era berean, behe mailako taldeetan dabilzan jokalaririk ate joka dutoz. Lehen taldera igotzea, ordea, ez da horren erraza.

Gizonen taldeak ez du aurrekontu makala. Emakumezkoen taldean ere horrenbeste diru mugitzen al du Barçak?

Ez du kolorerik. Zuzendaritza batzordeak aurrekontu bat zehazten du urtero, eta diru kopuru horrekin kudeatu behar dugu denboraldi osoa; eta, fitxaketak ere, aurrekontu horrekin egin behar izaten ditugu. Alde horretatik, amorrerik pixka bat ematen digu; azken finean, guk ere lehen mailan jokatzeko dugu. Aurten, irabazi dituztenak irabazita, diru ugari lortu du klubak, baina dena beraien eskuetan geratu da.

Harremanik ba al duzue Barçako gizonetakoekin? Telebistan diruditen bezain izarrak al dira?

Normalean, ez dugu bat eginen

entrenamenduetan, atak itxita entrenatzen baitute beti. Entrenamendua bukatzen dutenean ikusi izan ditugu, baina oso gutxitan. Nahiz eta elkarte berdinean jokatu, ez dut oraingoz jokalaririk ezagutu. Egia esan, agurtzen dute ikusten gaiztuztenean, baina telebistan ikusten diren bezain izarrak dira, bai.

Konparazioak gorrotagarriak dira, baina ba al dago emakumeen futbola sustatzeko jarrerarik?

Bartzelonan, behintzat, ez dut halakorik ikusten. Jende gutxi etortzen da gure partidak ikustera; gehienak gurasoak, familiakoak eta lagunak dira. Jarrera aldaketa edo oihartzun gehiago merezi du; batik bat, gure jardunaren berri gehiago argitaratuta. Azken finean, gizonetakoekin eta guk jokatzeko duguna futbola da, eta biak gaude lehen mailan. Hala ere, ikusi besterik ez dago batzuei eta besteoi zer nolako trataera ematen diguten. Nire ustez, emakumezkoen partidak ere gizonetakoekin maiztasun berarekin eman beharko lituzkete telebistan. Hedapen bera eman beharko lituzkete komunikabideek.

FUTBOLA

Kokalekua...

«Realean aurrelaria nintzen, eta hegalean ere jokatzeko nuen noizbehinka, baina beti aurrealdeko lerroan. Bartzelonan, aitzitik, atzealdean jokatzeko dute, eskuin hegalean. Taldean sartu eta berehala, entrenatzaileak hegalean ipini ninduen. Egia esan, kokaleku hori ez zitzaidan gehiegi gustatzen hasieran. Gero, Espainiako selekzioarekin eskuin hegalean jokatu nuen eta, harrezkero, postu horretan zelairatzen naute Bartzelonan ere. Egia esan, oso gustura nago kokaleku horretan, baina arraro samar ere sentitzen naiz, lehen golak sartzen nituelako eta orain ez. Orain jokaldiak nire hanketatik abiatzen dira eta horrek ere betetzen nau». Partidak jokatzeko zen Laura Gomezek nahia eta, memento, norgehiagoka guztiak jokatzeko ari da: «Hasierako hamaikakoan iristen naiz zelaira. Titular jokatzeko dute, baina ez

eta selekzioa

nuke esango entrenatzailearen kuttunetako naizenik. Lana gogor egin behar duzu astero-astero eta entrenamenduz entremendu, inork ez baitu bere postua bermatuta hamaikakoan. Titular gisa jokatzeko badut ere, nire postuan beste jokalaririk batzuek ere badaude taldean eta edonork joka dezake». Iaz Espainiako selekzioak Herbehereetan jokatu zuten Europako Txapelketarako hautatu zuten, eta esperientzia polita izan zela dio Gomezek, nahiz eta debutatzeko aukerarik izan ez zuten. «Aurten, datorren urtean jokatzeko den Munduko Txapelketara sailkatzeko partidak jokatzeko ari dira, baina ez naute hautatu. Gainera, ez dut uste nirekin konstatuko dutenik, selekzioa nahiko definituta baitago. Dena dela, batek daki zer gertatuko den!»



Akonkaguarako atzera begirada

Otsailean 25 urte bete ziren Murua eta Zabala zarauztarrak Akonkaguako gailurrera iritsi zirela. Urteurrenaren haritik, orduan bizitakoa ekarri dute gogora mendizaleek.

AMETSA EGI bihurtuz, Zarauztik abiatutako lagun batzuk Akonkaguako gailurrera (Argentina, 6.959 metro) iritsi ziren 1985-eko otsailaren 3an. Jose Ramon Zabala, Jesus Manuel Murua, Koldo Camino eta Felipe Uriarte izan ziren abentura hartako protagonistak, eta Zarauzko edo inguruko herritako mendizaleek igotako tontorrik garaiena izan zen orduan. Aurretik, Huascarana (Peru, 6.768 metro) joan zenik ere bazen Za-

rautzen. Eta Muruak berak, era berean, Kilimanjaro (Tanzania, 5.895 metro) igo zuen 1976an, Zumaiaiko mendizale talde batekin; besteak beste, Jokin Zubeldiak, Fernando Zearretak, Luis Mari Aristegik eta Javier Carballo osatutako taldearekin. Hala ere, Akonkagua baino txixkixagoak ziren ordura arte igotako guztiak. Balentria hartatik hona 25 urte luze pasatu dira. Denbora azkar igarotzen bada ere, oroitzapenak lehen egunean bezain bizi gogoratzen dituztela adierazi du Zabalak.

Gaur egun, mendiari eta mendizale-tasanari buruz nahi adina informazio dago; munduko ia edozein tontor igotzeko trekkinak daude, baita alde aurretik antolatutako bidaiak ere. Alde horretatik, oraingoak ez du kolorerik ordungoarekin. Garai hartan, esaterako, apenas zegoen ezer. «Donostiako

Alde Zaharrea zegoen Grafos izeneko liburudendan Akonkaguari buruzko koadernotxo bat topatu nuen. Liburu xumea zen, baina gauzak oso zehatz azaltzen zituen. Horrenbeste aldiz irakurri ondoren, apurtxo bat obsesionatu egin nintzen. Nolabait ere, argi neukan Akonkaguara joan behar nuela!», gogoratu du Zabalak.

Bolada hartan, Murua zuen bidaide eta kafetxo baten tenorean, Akonkagua igotzeko proposamena egin zion Santarba tabernan. Muruak erronka barneratu eta onartu ahala, Koldo Camino koinatuari kasu egin zion Zabalak. Hala, espedizioko hirukoa osatu eta entrenatzeari ekin zioten jo eta su. Hirukoarentzat, ordea, euren kabuz egin beharreko lehen irteera luzea zen, eta horrek hainbat kezka sorrarazi zien. Zalantzak ekidin eta segurtasuna bermatze aldera, eskarmentu dezente zeukan Felipe Uriarte mendigoizale pasaitarrarekin jarri ziren harremanetan: «Bere presentzia mesedegarria izan zen, taldeak denbora ez galtzeko eta aklimatazioa behar bezala egiteko».

Ibilbide aldaketa

Mendizaleen lehen asmoa Glaciar de los Polacos izeneko bidetik igotzea zen: «Glaziar batetik hasi eta tontorren bukatzen denez, ibilbidea teknikoagoa da, baita polititagoa ere». Tamalez, naturak agintzen du mendian eta honek finkatutako baldintzak errespetatu behar izaten dituzte mendizaleek. Horrenbestez, espedizioko egunetan egin zuen eguraldiak ez zien hasierako bidetik igotzeko aukerarik eskaini, hotsa eta haizea izan zirelako nagusi. Beraz, ipar aurpegitik igotzea erabaki zuten, bide arruntetik. Urtarilaren

**MURUA
ETA URIARTE**
kanpo basean,
Plaza de Mulas
deitzen dioten
eremuan.



12an irten ziren Zarauztik eta egun bat geroago Argentinan ziren, Mendoza. Igoerarekin hasi aurretik, Vallecitos zonaldean ibili ziren astebetetz, altuera ongi aklimatatzeko.

Aklimatazio prozesua «oso gogorra» izan zela oroitzen du mendizale zarauztarrak: «Ondoen Camino moldatu zen; Murua eta ni, ordea, nahikoa larri. Gorputza horretara jartzeko denbora behar da eta, agian, Uriartek azkarregi sartu gintuen girotze prozesuan. Suabeago hasi beharrean, hasieratik 5.000 metroko mendiak igotzen hasi ginen. Aklimatazio oso gauza pertsonala da, eta batzuek besteek baino hobeto erantzuten dute. Egun horietan sufritu genuen gehien: sekulako buruko mina, goragalea, jateko gogorik ez... Baina, behin aklimatatu eta gero, primeran ibili ginen».

Ezustea bidean

Akonkaguako *etsai* nagusia hotza da, eta egun haietan ez zen gutxiago izan. Bidean, lehen kanpamentuan zeudela, ekaitzak harrapatu zituen eta hiru egunez mugitu ezinik geratu ziren toki berean. Gainera, «bakar-bakarrak geunden, ez zebilen beste inor igoera saiatzeko bide arruntetik. Gainerako guztiak behean zeuden, Plaza de Mulasen edo oinarritzko kanpamentuan».

Ekaitza pasatu eta bigarren kanpamentura bidean, ezerezetik agertu ziren bi mendizalerekin egin zuten topo. Hauek beherantz zihoazen, balantzaka. «Mendian bakarrik ba-geunden, nondik datoz horiek?», galdetu omen zioten elkarri. Bata txiletarra zen eta bestea, poloniarra. Erdi itsututa zeuden, leher eginda eta izoztuta. «Esertzen lagundu eta te beroa prestatu genien. Nik bieta-ko bati eman nion katilua, baina ezin helduta zebilen. Orduan, edaria ematen ari nintzaiola, sudurzuloak eta belarrietako zuloak izotzaren eraginez hantuta zeuzkala konturatu nintzen. Segidan, eskularruak kendu zituen, esku erdia erabat belztuta zuela erakutsiz. Hego aurpegitik igo zuten mendia, bide zailenetik; hau da,

3.000 metroko horma zoragarri bezain beldurgarritik zetozen».

Zabalak kontatuakoaren arabera, bidean topatutako bikoteak ekaitza atari zabalean pasatu behar izan zuten. Eta, horren ordaina garesti ordaindu zuten, gainera. «Akonkaguatik jais-terakoan haietaz galdetu genuen, eta hatzak moztu zizkiotela esan ziguten. Askotan ikusi nituen izozteen irudiak aldizkarietan edo telebistan, baina hura izan zen bertatik bertara ikusten nuen lehen aldia eta, egia esan, zirrara handia sorrarazi zidan. Gaur egun, helikopteroa, hotela eta medikuak daude, baina orduan ez zegoen horrelakorik».

Tontorra eta euforia


Horrenbesteko hotza egin zien gailurrera igotzeko eta jaisteko egunean ere, kantineploratan zeramaten ura izoztu egin baitzitzairen. «Berokien barruan babestu arren, edatekorik gabe geratu ginen bigarren kanpamentura jaitsi arte. Ezusteko hori sekulakoa da garaiera horietan, izan ere, lauzpabost litro ur edatea gomendatzen dute. Egia esan, nahikoa larri pasatu genuen egun hura», dio mendizale zarauztarrak.

Gainera, ura ez zen izan igoeran izoztu zitzaizen gauza bakarra: «Murua gure atzetik iritsi zen tontorrera eta bera iristerako, argazki kamera ere izoztu zitzaigun, nahiz eta hori ez gertatzeko neurri guztiak hartu genituen. Sutan jarri zen, baina tira! Argazkirik eduki ez arren, abenturako benetako irudiak, oroitzapenak eta emozioak norberak bere baitan gordetzen ditu».

Tontorrera iristerakoan, «lortu diagu!» pentsatu zuen Zabalak asebeteta: «Lasaitasun handia sentitu nuen. Lasaitasun faltsua. Bertan geratzeko go- goa neukan, nahiz eta jakin jaitsi egin behar genuela ilundu baino lehen. Sentipen sinesgaitza dirudi, baina hainbat mendizalari gertatu zaie, eta deskuidatuz gero, oso arriskutsua da. Izan ere, abentura menditik jaitsi eta kontatzen duzunean bukatzen da. Niretzat gauza handia izan zen Akonkagua igotzea. Betidanik maite izan dut mendia eta esperientzia hark asko bete ninduen».



ZABALA
Akonkaguako
gailurrean,
ikurrina
eskuan duela.



«Askotan ikusi nituen izozteen irudiak, baina bertatik bertara ikusten nuen lehen aldia izan zen hura eta, egia esan, zirrara handia sorrarazi zidan»

Borondatezko kirolarien txanda

Seigarren aldiz, borondatez lan egiten duen Oriotarrak Kirol Batzordeak Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko azken etapak ekarriko ditu Oriora eta Aiara, apirilaren 9-10ean.

ORIOARRAK Kirol Gertakizunetarako Toki Batzordea, kirol ekitaldiak beren borondatez antolatzearaz arduratzen den Orioko lagun talde bat da. Batzordeak 1992an jaso zuen izaera legala, baina aurretik bazeramatzan urte batzuk kirol jarduerak eta txapelketak antolatzen herrian modu independentean: besteak beste, herri kirolak, arraun estropadak, kros lasterketak, boxeo jaiak

diak eta Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko hainbat etapa. Aurten, Itzuliaren 50. urteurrena izango da eta Oriotarrak batzordeak ahalegin berezia egin du txirrindulari probako azken etapak Oriora eta Aiara ekartzeko. Honakoa, gainera, kirol ekitaldi horretan parte hartzen duen seigarren aldia izango da: 1984an (Zarautzekin batera), 1996an, 1999an (Aiarekin batera) eta 2008an (Aiarekin batera), Orion bukatu zen eta 1992an, Oriotik abiatu zen.

Dozena erdi pasatxo lagunek osatzen dute elkarteak –Fernando Ortiz de Guineak, Jose Karrerak, Jon Karrerak, Luis Gozategik, Santi Martinezek, Manuel Martik eta Ramon Sarasuak, besteak beste–, baina ekitaldiz ekitaldi, batzordea ugaltu

egiten da herritarren laguntza eskuzabalarekin: «Alferrik da guk ekitaldiak antolatzea, beraien laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeelako hau guztia aurrera ateratzea. Duela bi urte, esaterako, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulian 150 bolondres izan genituen lanean lasterteketa egunean, eta hori estimatzekoa da benetan», adierazi du batzordeko presidente Fernando Ortiz de Guineak.

Gaur egun kirol elkarteak izan ohi dira kirol ekitaldiak edo jaialdiak antolatzen dituztenak, baina 80ko hamarkadan gauzak bestelakoak ziren eta batzordeko kideak izan ziren herriko lehenengo estropadak eta lasterketak antolatzen hasi zirenak. «Orain, nolabait esateko, hasieran hartu genituen funtzio gehienak ki-



LAGUN TALDE BAT

Dozena erdi bat herritarrek osatzen dute Oriotarrak Kirol Batzordea, eta gaur egun txirrindulari jardueretan murgilduta dabil.



ORTIZ DE GUINEA
2008ko Euskal Herriko Itzulian, Damiano Cunego txirrindulariarekin.

rol elkarteek beraiek hartu dituzte, eta guk laguntzaile gisa hartzen dugu parte», dio Oriotarrak taldeko kide Jose Karrerak.

Hala, Oriotarrak batzordea batik bat txirrindularitzako jardueretan dabil buru-belarri egun: «Aian, jubenil mailako errepideko lasterketa bat antolatzeko deitu digute orain; neguan, ziklo-kros proba antolatzen dugu Orion; eta aurten, beste behin, Euskal Herriko Itzuliari helduko diogu». Eta, gainerako kirol jardueraretan, bien bitartean, kolaboratzaile lanak egiten dituzte.

Ikusgarriagoa aurten

Txirrindularitzako proba oro bezala, eguraldiaren baldintzapean antolatu beharko dute aurtengo Euskal Herriko Itzulia. Nolanahi ere, Itzuliaren azken txanpako lasterketak, Aia-Orioko etapak, «benetan ikusgarriak» izango direla aurreratu du batzordeko presidentek: «Ibilbidea hobetuz eta zailduz, erakargarritasun gehiago eskaini nahi diogu zaletuei». Era berean, Itzuliaren 50. urteurrena izanik, Orion eta Aian bukatzea «berezia» izango dela nabarmendu du honek: «Gisa horretako urteurren batekin bat egitea oso tentagarria da beti, eta horren bila joan gara».

Urteurrenak urteurren, Euskal Herriko Itzulia UCI Pro Tour zirkuituaren baitan dago eta mementoko txirrindulari talde garrantzitsuenek hartuko dute parte beste behin ere. Horrenbestez, «xehetasun guztiak ongi lotu beharko ditugu». Itzulia apirilaren 5etik 10era jokatu da. Hilaren 9an, tropela Eibartik Oriora joango da eta hurrengo egunean, hilaren 10ean, Orio-Aia-Orio erlojupekoa jokatu dute. Gutxi gorabehera, duela bi urteko antzeko bukaera izango du Itzuliak, baina «gogorragoa izango da eta horrek ikusmin gehiago sortuko du! Garai bateko txirrindularitza izango da, benetako txirrindularitza».

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Orio bezalako herri txiki batera ekartzea oso garestia da, eta bukaera are garestiagoa. Publizitateari esker egiten dio aurre batzordeak antolakuntzako gastuei, eta «ahalik eta babesle ekonomiko gehien guganatzan saiatzen gara horretarako, Udalak gasturik izan ez dezan». Oriotarrak batzordea Orioko Udalean dago zentralizatuta eta bere babes osoa du, baina modu autonomoan funtzionatzen du, hasierako borondate izaera galdu gabe.

Garaiak aldatuz, baina erreleburik ez

Oriotarrak Kirol Batzordea bezala borondate hutsez funtzionatzen duen beste elkarerik ez dago Euskal Herrian: «Kirol jarduerak antolatzeko modu legalean erregistratuta dagoen beste lagun talderik ez dago. Altruistak gara, musu-truk egiten dugu egiten duguna», adierazi du Fernando Ortiz de Guineak. Gauzak modu desinteresatuan antolatzeko joera, gainera, asko aldatu da urteen poderioz: «Bizigarri berririk, jende berririk, ez da antzematen gaur egun. Errelebu falta dago, eta egoera oso konplexua da gainera. Gaur egungo gazteria kolaboratzeko prest agertzen da, baina jarduera zehatz batzuetan bakarrik. Ez dute inolako erantzukizunik hartu nahi. Beste modu batera ikusten dituzte gauzak». Hala ere, lasterketa egunean erantzun ona ematen dutela eta euren laguntza eskertu behar dela dio batzordeko presidentek. Era berean, aurtengo Itzulia lagundu nahi duten herritarrei dei berezia egiten nahi izan die.



Bertako zaletuak, «munduko onenak»

Euskal Herriko eta, batez ere, Gipuzkoako zaletuak «munduko onenak» direla aldarrikatuta du Oriotarrak batzordeko presidentek: «Ez dago beste inon horren eremu txiki batek txirrindularitzari edo edozein kirol ekitaldirik horrenbesteko harrera eskaintzen dionik. Bertako zaletuak bete-betean murgiltzen dira eta gertutik bizi dute lasterketa. Mugak gaindituz gero, guztiz aldatzen da giroa eta jarrera hori». Duela bi urte agerian geratu zen Gipuzkoako eta batik bat eskualdeko jendeak zernolako zaletasuna duen txirrindularitzarako. Orioko hondartza inguruan atondu zuten helmuga inguruan ez ezik, erlojupekoaren egunean, Aian, Agerreko aldapan, jendetza bildu zen txirrindularien ahalegina txalotzera eta animatzera. Aurten ere, ez da gutxiagorako izango!

Urratsez urrats zaletasuna sustatzzen!

Urola Kostako Haur Ibilaldi Neurtua egin zuten Zumaian joan den martxoaren erdialdean, Inda Mendi elkarteak antolatuta. Taldetan banatuta, 400 haurrek Zumaia eta bere ingurua ezagutzeko aukera ezin hobe izan zuten.

MENDIZALETASUNA gaztetxoaren artean sustatze aldera, martxoaren erdialdean Haur Ibilaldi Neurtua antolatzen dute urtero Gipuzkoako hainbat zonaldeetan, Eskola Kirolaren baitan. Zonalde horietako bat Urola Kosta eskualdea da eta, aurten, Inda Mendi elkarteak antolatu du Zumaian; herriz herri txandaka antolatu ohi dute.

Gutzira, Azkoitiko, Azpeitiko, Getariako, Orioko, Zarauzko, Zestoako eta Zumaiaiko 400 haur inguruk har-

tu zuten parte martxoaren 14an Urola Kostako Haur Ibilaldi Neur-tuan; eta, horiekin batera, ia 300 heldu animatu ziren txangoa egitera. Hiru, lau edo bost lagunetako taldeetan elkartuta, Ondartxo plazatik abiatu ziren hauek, 08:30ak eta 09:00ak bitartean, taldeak bere fitxa ongi bete ondoren.

Ibilaldi neurtuak bi ibilbide izan zituen aukeran; bata, ibilbide luzea, 11,9 kilometrokoa, haur koskorrei zuzendua, eta bestea, ibilbide laburra, 8,6 kilometrokoa, haur txikientzat. Bata edo bestea aukeratu, eskualdeko gaztetxoek Zumaia eta bere ingurua ezagutzeko aukera ezin hobe eduku zuten. Ibilbide erdian, Galarreta atsedean lekuan, parte-hartzaile guztiei hamaiketako banatuko zieten Inda Mendi elkarteko kideek; salda beroa, mokadutxo eta edaria, hain justu ere. Haur Ibilaldi Neurtua zintzo-zintzo osatu zuten gaztetxo guztiei txapel eta agiri bana eman zieten, oroigarri gisa.



DATUA

36

Duela 36 urte Luis Mari Alberdi pilotari zumaiarra munduko txapelkun izan zen Uruguain, eta han eman zioten kopa bertako haur bati oparitu zion. Kasualitatea edo ez, haur hori Realeko egungo entrenatzaile Martin Lasarte da. Realarekin fitxatu eta Donostiara ailegatu bezain pronto, entrenatzaile uruguaitarrak Alberdirekin harremanetan jarri nahi izan zuen. Ez zen gauza erraza izan, ordea; Lasarte ez zen pilotariaren izenez oroitzen. Hilabete batzuk kostatu zitzaion entrenatzaileari bere txapelkunarekin elkartzea. Realeko arduradunek hemerroteketan egindako ikerketa lanaren ondoren, Alberdirekin harremanetan jartzea lortu zuten. Hala, joan den otsailean, Martin Lasartek eta Luis Mari Alberdik berriro ere bat egin zuten, Zubietan.



BA AL DAKIZU...

zergatik eman zuten garaikurra?

Alberdik gogoan zuen txapelketako garaikurra haur bati eman ziola, «baina nor zen... ideiarik ere ez!». Munduko Txapelketan hainbat haur gerturatu zen egun haietan pilota partidak jarraitzera, eta finaleko egunean pozez gainezka aritu ziren zumaiararen garaipenarekin. Alberdik haur horiek bere atzetik ibili zirela ikusita, irabazitako garaikurra horietako bati oparitu zion, Martin Lasarte izeneko haurrari.

Getaria

Getariako Haur eta Gazteen 32. Esku Pilota Txapelketa

Lau partida jokatu zituzten finaleko egunean; benjamin mailako hiru eta alebin mailako bat, hain zuzen ere.



Getariako Haur eta Gaztetxo Eskuz Banakako 32. Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 7an, herriko frontoian. Urtero bezalaxe, txapelketa Gure Txeru Elkarteak antolatu zuen eta 7 urtetik 12 urte bitarteko makina bat haurrek hartu dute parte. Hala ere, zortzi lagunek baino ez zuten finaleko txartela lortu. Guztira, lau partida jokatu zituzten; benjamin kategoriako hiru eta alebin kategoriako bat, hain zuzen ere. Alebinetan, Gorka Aristik 22-7 irabazi zion Aitor Arangureni; benjaminen A taldean, John Willy Insausti izan zen garaile Aratz

Lertxundiren aurka, 22-15 emaitzarekin; benjaminen B taldean, Gorka Egurennek eta Oihan Larrañagak 18-7 bukatu zuten partida; eta, benjaminen C taldean, azkenik, Aitor Alonsok tanto baten aldearekin irabazi zion Mikel Rodriguezi (18-17). Gure Txeru Elkatekoak urrian hasi ziren pilotako entrenamendu saioekin. Harrezkero, astean bi egunetan aritu dira eskuz pilotan trebatzen; astearteetan eta ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara. Hain justu ere, entrenamendu saioak aprobetxatu zituzten txapelketako partiden kanporaketak egiteko eta finalistak erabakitzeko.



HARIARI TIRAKA

Zarauzko Iraupen Luzeko Ibilaldia Mendi zeharkaldi oparoa

PAGOETA Mendizale Elkartek Zarauzko Iraupen Luzeko Bigarren Ibilaldia antolatu du apirilaren 18rako. Natura errespetatuz, mendizaletasuna bultzatzea eta Zarautz inguruko mendiak, txokoak eta ibilbideak erakustea du helburu zeharkaldi honek. Gainera, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Bederatzigarren Zirkuituaren baitako jardunaldia izango da.

Iraupen Ibilaldiarekin batera, Ibilaldi Txikia ere prestatu dute antolatzaileek; batik bat, fisikoki horren prestatuta ez daudenak kontutan hartuz. Iraupen Ibilaldiak 45 kilometro inguru izango ditu eta gutxi gorabehera 9-10 ordu behar-

ko dute osatzeko. Ibilaldi Txikiak, aldiz, 27,3 kilometro izango ditu, 6-7 orduetan egiteko modukoa.

Irteera Zinema pilotalekutik egingo dute, bai Iraupen Ibilaldikoek bai Ibilaldi Txikikoek; lehen multzokoak 07:00etan abiatuko dira eta, bigarrenekoak, ordubete geroago. Antolatzaileek hainbat zerbitzu prestatuko dute; besteak beste, janari eta edari postuak eta dutxak udal kiroldegian, 13:45etik 18:30era.

Parte-hartze kopurua 800 ibiltaritara mugatu dute, eta izena apirilaren 16a bitartean eman ahal izango da, www.pagoeta.com webgunean, 943-132911 telefono zenbakira

deituta edo elkartearen bulegoan. Mendian federatuta daudenek 10 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 12 euro.



ESKUALDEKO EMAKUMEAK LILATOIAREKIN BAT

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperan, 21. Lilatoi lasterketa egin zuten Donostian, eta eskualdeko hainbat emakumek hartu zuten parte bertan; Zarautzik, esaterako, autobusa antolatu zuten. Iratxe Aranburu zarautzitarra izan zen garaile; Nerea Amilibia aiarrak, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen.

Triatloia

Zarauzko XXIV. Triatloi

probarako izena emateko epea martxoaren 27an irekiko dute, 10:00etan; izena emateko www.zarauzkotriatloia.com webgunera sartu beharko da.

Arrauna

Orio Arraun Elkarteko kide Javier Puertasek iragan urteko arraunlari beterrano onenaren saria jaso zuen Sevillan (Espainia), Espainiako Arraun Federazioaren eskutik.

Errugbia

Zarautz Rugby Taldeak

antolatuta, aurten ere Garagardo Azoka egingo dute Zarauzko Munoa plazan. Azoka martxoaren 31tik apirilaren 5era egongo da zabalik, musika eta guzti.

Zumaiako Piragua Itxas-Gain, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelkun

ESTROPADA bakarrean, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi zituen Itxas-Gain piragua taldeak. Otsaila amaieran Zumaiako jokatzekoak ziren Gipuzkoako Txapelketa bertan behera utzi zuten, ziklogenesiagatik, eta piragua federazioek eta elkarte parte-hartzaileek txapelketa hori Euskadiko Txapelketarekin batera jokatzera erabaki

zuten, Irunen, martxoaren 7an. Maila indibidualean garaipenik lortu ez arren, goiko postuetan sailkatu ziren Zumaiako piraguista gehienak. Junior mailan, Miren Lopetegi bigarren izan zen. Bestalde, hirugarren postuan lau lagun sailkatu ziren: seniorretan, Xabier Osa; juniorretan, Xabier Centeno; eta, kadetetan, Xabier Lopez eta Laura Peña.



Atletismoa



Zumaiako XXVI Herri Lasterketa apirilaren 24an jokatu da; 16:00etan haurrak eta 17:00etan helduak. Hasieran otsailaren 27rako antolatu zuten, baina egun horretarako iragarrita zegoen haizete arriskutsua zela eta, atzeratu egin behar izan zuten. Aurretik izena emanda dutenak zuzenean pasako dira zerrenda berrira. Hala ere, izenematea bertan behera utzi nahi dutenek, horretarako aukera izango dute. Era berean, izena emateko epe berria zabaldu dute, 9 euro ordainduta; egunean bertan, 15 euro.



Zesta-puntako lau jokalarik Filipinetako pilotalekura

Urte eta erdi geroago, Alex Blazquez, Mikel Erkiaga eta Jonathan Hernandez zesta-punta jokalarik zumaiarrak Filipinetan dira; beraiekin batera Aitor Gorostola azpeitiarra ere joan da. Laukotea urtebetez ariko da Santa Ana Cagayan Valleyko frontoi berrian jokatzen. Master Jai enpresak egin die eskaintza eta, gauzak ondo ateraz gero, kontratua luzatzeko aukera izango dute.

Orioko Futbola Amestutako estreinaldia

IOSU ESNAOLA futbol jokalarik oriotarrak Realeko lehen taldearekin debutatu zuen partida ofizial batean, otsailaren 27an, Huesca taldearen aurka. Hasierako hamaikakotan irten zen zelaira, eta partida osoa jokatu zuen. Modu horretan, bere futbol ibilbideko helburu garrantzitsuenetako bat lortu zuela adierazi du. «Ametsa errealitate bihurtuta, orain beste helburu batzuk finkatu beharko ditut. Printzipioz, nire hurrengo erronka Realarekin lehen mailara igotzea da», dio Esnaolak. Taldearekin duen kontratua aurten bukatzen zaio, eta jakin badaki berri-zeza ez dela erraza izango. Dena dela, «hori lortzeko borrokatuko dut denboraldi bukaerara arte».



Esku pilotaren pauso garaikideak

Pilotarien mugimenduak aztertu ondoren, 'Dantza Banaka' ikuskizuna sortu du Eneko Balerdik; kale antzerkietan antzeztu nahi du udaberritik aurrera.

ESKU PILOTA eta dantza garaikidea *anaitu* ditu Eneko Balerdik dantzari aiarrak *Dantzan Banaka* koreografiarekin. Erronka konplexua bazi-rudien ere, batak zein besteak gorputz mugimendua oinarri dutela eta guztiz bateragarriak direla argudiatu du sortzaileak: «Esku pilotako mugimenduak duen indarra, kalitatea eta osagai dimentsionala asko gustatzen zaizkit, eta dantzaren eta mugimenduaren analiarekin oso gertukoak direla iritzi diot». Gaia sakon aztertu ondoren, pilotako mugimendurik interesgarrienak jaso, bere egin eta koreografia sortzeko erabili zituen.

Balerdik azaldu duenez, proiektuak bi abiapuntu izan zituen. Alde batetik, «frontoirako lan bat egin nahi nuen, Euskal Herrian plaza izaera izan baitute betidanik. Izan ere, frontoiak pilota partidak jokatzeko guneak izateaz gain, arte eszenikoen antzoki ere izan dira. Aian, esaterako, ikusi genituen lehen antzezlanak herriko frontoian izan ziren». Bestetik, pilotariaren mugimendua bera izan zen: «Euskal Herrira itzultze-

rakoan hainbat partida ikusi nuen, eta pilota eta dantza ikuskizun batean uztartzeko gooa piztu zitzaidan».

Kezka horietatik abiatuta, *Dantzan Banaka* proiektuaren zirriborroa egin eta euskal koreografo berriak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen Dantzan Bilaka ekimenera aurkeztu zuen. «Zorionez, koreografia lantzeko laguntza ekonomikoa eman zidaten», dio dantzari aiarrak.

Pilotaria lagun

Urtebetez proiektua lantzen jardun ondoren, joan den udazkenean estreinatu zuen. Sortze prozesu luze horretan, gainera, Oier Mendizabal pilotariarekin jarri zen harremanetan. «Londresen nintzela ezagutu nuen Mendizabal eta, agian, hori ere izan liteke nire hirugarren abiapuntua. Lagun egin ginenez, berarekin kontratatatu ditut pilotarien mugimenduak; nik nire dantzari eta koreografo ikuspegitik eta berak, berriz, pilotaren erraietatik. Nire analisia pilotaren errealitatearekin uztartzen lagundu dit».

Ikuskizunak harrera ona izan duen arren, orain arte hiru aldiz baino ez du taularatu. Aurrerantzean, ordea, jendaurrean ahalik eta gehien aurkezten saiatuko da. Koreografia zabaltze aldera, udaberritik aurrera Euskal Herrian eta Espainian antolatzen diren kale antzerki jaialdietan antzeztu nahi duela jakitera eman du Balerdik: «Nire lanak publikoarenganako gerturatze zuzena du, eta kaleak horretarako bide emango lidake. Gainera, nire hasierako asmoetako bat frontoietan antzezteaz gainera, kale animazioko jaialdi horiek horretarako aukera eman diezadaketela uste dut».

BALERDI
'Dantza
Banaka' laneko
pasarte bat
antzezten,
Bilbon.

